

124/2017 FORU AGINDUA, urriaren 30ekoa, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, hasiera ematen diona Nafarroako Jarduera Arriskutsuen Katalogoa onetsi eta Nafarroako Autobabes Planen Erregistroa sortzeko foru dekretu baten proiektua prestatzeko prozedurari, eta indarrrik gabe uzten dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren urriaren 15eko 200/2014 Foru Aginduaren ondoriozko administrazio jarduketak.

Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren leko 8/2005 Foru Legearen 7.3 artikulua xedatzen du pertsonen edo ondasunen arrisku larria sortzen ahal dieten jardueren katalogo bat ezarriko dela erregelamenduz, baita horrelako jarduerak hartzen dituzten zentro, establezimendu, toki eta instalazioena ere.

Horrenbestez, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren urriaren 15eko 200/2014 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Nafarroako Jarduera Arriskutsuen Katalogoa onetsi eta Nafarroako Autobabes Planen Erregistroa sortzen duen foru dekretuaren proiektua prestatzeko prozedurari, eta indarrrik gabe utzi ziren Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren martxoaren 25eko 135/2008 Foru Aginduaren ondoriozko administrazio jarduketak.

Tramitazio horren azken eguneratzea egin zenetik bi urte igaro dira aurrerapenik egin gabe. Hori ikusirik, eta, batez ere, jendaurrean jarritako foru dekretuaren zirriborroaren testua aldatu beharra dagoela kontuan harturik, aldi honetan bildutako esperientziak erakutsi baitu, bereziki, jarduera gehiago sartu behar direla jarduera arriskutsuen katalogoan, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait establezimenduren erabiltzaileen segurtasuna handitzeko asmoz, egoki eta beharrezkoa da indarrrik gabe uztea urriaren 15eko 200/2014 Foru Aginduaren bidez hasitako tramitazioa eta hasiera ematea beste tramitazio prozesu bati.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59. artikulua adierazten du kasuan kasuko gaiaren arabera eskumena duen kontseilariak hasiko dituela erregelamenduzko

xedapenak prestatzeko lanak, eta hark izendatuko duela prozeduraren ardura izanen duen organoa.

Horrenbestez, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.e) artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Hasiera ematea Nafarroako Jarduera Arriskutsuen Katalagoa onetsi eta Nafarroako Autobabes Planen Erregistroa sortzen duen foru dekretuaren proiektuari.

2. Indarrik gabe uztea Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren urriaren 15eko 200/2014 Foru Aginduaren ondoriozko administrazio jarduketak.

3. Barne Zuzendaritza Nagusia izendatzea proiektuaren prestaketaren eta prozedura horren organo arduradun.

4. Foru agindu hau igortzea Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari, Barne Zuzendaritza Nagusiari, Babes Zibilerako Zerbitzuari eta Barneko Araubide Juridikoaren Zerbitzuari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hogeita hamarrean,

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO,
BARNEKO ETA JUSTIZIAKO KONTSEILARIA
María José Beaumont Aristu